

# Aretxagazeta

## ETA GAINERA...

### Ze barri?

ASTEKO GAIA

'Ezkurtxo' Gellaora joango da, bihar /6

ELKARRIZKETA

Kirmen Uriberen poesia errezitaldia /9

LEINTZ GATZAGA

Bi mila lagunek bisitatu dute Gatz Museoa /10



**ENERITZ  
PAGALDAI,  
Mundukide  
elkartearekin  
Mozambikera  
elkartasuna  
eskaintzera**

ASTEKO GAIA: KURTZEBARRI ESKOLAKO LANAK/4 • KIROLA: TXOMIN MANTECA/6



**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 26**  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 21 99  
**DOMEKA, 27**  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 85 83

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTAINGOA**

Arrasate 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdik	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**

Domeketan: 11:00/12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan: 19:00

**SANTA RITA**

Domeketan: 09:00/10:00  
Lanegunetan: 08:00

**BASERRI AUZOETAN:**

**GORONAETAN**

Domeketan: 11:30

**MENDIOLA**

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GALARTZA**

Domeketan: 12:30

**OHARRAK**

**EPEH PLATAFORMAREN MANIFESTAZIOA**

Gaur, egubakoitza, EPEH Plataformak manifestazioa egingo du Pagaldaixeneko kantoian, 19:00etan. Betiko moduan, *Euskal Presoak Euskal Herrira!* lelopean egingo du manifestazioa EPEH Plataformak.

**ERRETIRATUENDAKO ESKULAN IKASTAROA**

Basotxo erretiratuen elkar-teak Eskulan ikastaroa antolatu du. Gura duenak Basotxo elkartearen eman dezake izena. Eta informazio gehiago gura izanez gero: 943 77 09 81.

**Eskulan IKASTAROA**

Oraindik zabalik dago Kultura Sailak antolatutako Eskulan ikastaroaren izena emateko epea. Izena emateko kultura etxera joan behar da, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Informazio gehiago gura izanez gero: 943 71 10 27.

**ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETA-N**

Zure bizilagunei, lankideei edo aretxabaletarrei orokorrean ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu tarte egokia. Deitu edo bidali zure oharra: Tel.: 943 79 86 21 [aretxagazeta@goiena.com](mailto:aretxagazeta@goiena.com)

**LORAMENDIREN AGENDA**

**PAKETERIA IKASTAROA**

Oparitarako paketeak zelan egin ikasteko ikastaroa antolatu du Loramendi EEk. Urriaren 30ean hasi eta azaroaren 13an amaituko da ikastaroa. Izena emateko: 943 77 09 70.

**ARETO DANTZEN IKASTAROA**

Natalio Maiztegi Areto Dantzen ikastaroak ematen ditu astelehenero, 21:45ean. Izena emateko epea zabalik dago oraindik!

**ORAINDELA 9 URTE ARETXABALETAN**

**Eskoriatza eta Arrasate arteko I. Krosa**

1993ko urriaren 23an egin zuten Eskoriatza-Arrasate I. Herri Krosa. Proba Eskoriatzan hasi zen, eta Aretxabaleta zeharkatu ostean Arrasaten amaitu zen. Aretxabaletar ugari hartu zuten parte lasterketan. Junior mailan Amaia Gaztañaga aretxabaletarra izan zen irabazlea.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Diarra"*

Deiadarra.  
-Baten baten diarra entzun da.  
-Polizian kontrako diarrak eittue manifestaziñuan.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Larraitze Berezibar**  
26an, 7 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Lur Gurrutxaga**  
26an, 10 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Leire Zubillaga**  
26an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Yolanda San Martin**  
25ean. Zorionak eta muxu handi bat, koadrilakoen partetik.



ARETXABALETA  
**Karmele Sillero**  
24an, 25 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Ekaitz Oñate**  
23an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen partetik.



ARETXABALETA  
**Antxon Azkarate**  
27an, 9 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZA  
**Janira Urcelay**  
18an, urte bat. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Alaitz Elorza**  
28an, 25 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagunaren partetik.



ARETXABALETA  
**Enea Elorza**  
28an, 25 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagunaren partetik.



Zenbaki


- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**


Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51



Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



**ITURGINTZA**


Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70



TREBENTZIAEZPADA/ Udazkena da. Zinera fateko ohiturarik badauketzu? Nora faten zara?



**BERTA MARTÍN**  
langillie



**ANJEL ALDAI**  
langillie




**LUCIA MURILLO**  
langillie



**VIRGINIA ARMENTIA**  
langillie



**JOSE MIGEL MENDIKUTE**  
langillie



**JULEN LOZANO**  
ikaslie

Bai, Gasteizera faten naz, Aretxabaletan ez dago-eta. Arrasateko zinetokixen begonda nau, baiñe gehixetan Gasteizera fateko ohituria dauket. Azkeneko, nin dala gutxi egon nitzen.

Ez dauket zinera fateko denporarik. Umiak, andria... Aspaldi ez dot astirik hartu pelikula bat ikusteko. Azkeneko fan nitzenien *Titanic* pelikulie ikusi neuela uste dot.

Bai, umiekin Gasteizeko zinetoki haundi batera fateko ohiturie dauket. Arrasatera sekula fanda nago, baiñe normalien egun pasa egin eta Gasteizera faten gare pelikulak ikustera.

Ez, egixa esan, aspaldi ez naz zinera fan. Azkenengo aldiz, Gasteizeko zintokire fan gitzen. Niregaittik ez, baiñe umiek asko eskertuko leukie herrixen be zinetxiki bat egittie.

Ez, ez dauket zinera fateko ohitura haundirik. Urtiek die zinien pelikula bat ikusi ez dotela. Azkenengo aldiz Arrasatera fan nitzen. Aretxabaletan be zinie jartie ondo legoke.

Bai. Gasteizera faten naz. Asko gustetan jat zinie, baiñe ez dauket askotan fateko aukerarik. Azkenengo aldiz, *La edad del hielo* pelikulie ikusi neuen, eta asko gustau jaten.

TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK NONDIK PASATU?** Badakigu Durana kalea oinezkoendakoa dela, baina goizetan eta arratsalde parte batean, behintzat, auto ugari ibili ohi da kale hartatik. Gainera, goizean autoak pasatu bakarrik ez, alboetan aparkatuta ere egoten dira. Egoera hori oinezkoendako arriskutsua da. Ez dago oinezkoendako zebra-derik eta, gainera, auto artetik bidearen ikuspegia galtzen da./A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

ASTEAN BEHIN /05

KIROLAK /06

**Kurtzebarriko eraikina**

Altzibar enpresa eraikitzaileak egingo du herriko plazan dagoen Kurtzebarri eskolako eraikina.

**Eneritz Pagaldai**

Mundukide gobernuz kanpoko erakundearen bitartez Eneritz Pagaldai Mozambikera doa.

**Txomin Manteca**

Ehiza denboraldia hasi da eta Txomin Manteca buru-belarri ari da galeperrak eta usoak ehizatzen.

ASTEKODATUA

22

**LAGUNEK HARTU ZUTEN PARTE PATXARAN LEHIAKETAN**

Urte batetik bestera ez da parte hartze handiagoa izaten Patxaran Lehiaketan. Baina, hala ere, antolatzaileek azpimarratu dute urte batetik bestera gero eta maila handiagoko lehiaketa egiten dela.

BESTEKEESANA

**“Nik batzuetan jubilatatu jubenilak garela esaten dut. “Ni jubilatua naiz” esaten dudanean jendeak**

**esaten du “zelan jubilatua zarela 40 urte dauzkak eta...” edo 36 edo 37 urte... baina kirol bizitzan hartutako esperientzia mordoa daukazu.**

**Profesional bizitzan 10 edo 15 edo 20 urtean hartzen duzu esperientzia guztia eta askotan buru aldetik ere zahartu egiten gara. Esperientzia asko bizi izan ditugula esan gura dut, eta momentu batean istorioak kontatzen hasten zara eta zera pentsatzen duzu: “horrelako istorioak nire aitona kontatzen zituen baina...”**

**Esperientziak elkar lotzeko balio behar du, guztion implikazio eta konpromisoarekin aurrera atera dadin proiektua.**

**ANDONI ZUBIZARRETA**  
ETB-1/02-10-17

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



*Loreak bide bazterretan*

**U**daberria baletor denok ulertuko zenukete gaiaren egokitasuna, baina aipagai ditudan bide bazterreko loreok ez doaz urtaro batekin, guztiakin baizik.

Kontatu dituzue Gatzagatik Bergararako bide bazterretan dauden lore sortak?, Hantxe

daude, tente, makila bati lotuta. Zimelzen direnean beste batzuketatik ordezkatzen dituzte berehala. Jakin badakigu zeren arrasto diren eta arrasto horren atzean zer dagoen... istripua, betiko galdutako senide eta herritarren samina, beldurra...eta gehienen kausa nagusia auto gidarien GEHEGIZKO ABIA-DURA.

Bide bazterretako loreok bate ote dute eraginik BESTEONGAN?. Nik baietz esango nuke. Herri barruak defenditzen hasita daude. Batzuketatik guztiok onartu ditugu eta gure kulturaren integratu: semaforoak, biribilak, piboteak. Azken hauek zeharo eraginkorrak ikusten ditut. Ikusi baino ez daukagu

herrian nola ibiltzen diren autoak eliza paretik Portasolera mendixka guztiak kontu handiz igaroaz eta elizatik Arbizelaira inongo trabarik gabeko zatian. Aipatutakoak izan beharko luke derrigorrezko neurri bat herri barru osoan (eta ez herriaren zati baten) geuk sortu baitugu

berauren premia oinezkoek ibiliko badira. Baina gidariok (batzuk) izunpeko trabarik aurrean ez dugunean, gure instinto naturalera bueltatzen gara.

Bestalde, bururatzten zait, herritik kanpoko errepi-deetan horrelakorik

ezin bada egin eta beste norbaitek hartutako neurria behar badugu abiadura egokian ibiltzeko, autoak diseinatzen dituztenek hartu beharko dituztela lehenengo neurriak abiadura mugatuaz, edo mugatu arazteko bitartekoak sortuz: autoei txipak edo ‘kaja beltza’ ezarri. Honela bai jakingo genukeela zeinen atzean eta noren aurrean goazen. Arazo guztiak ezin dira konpondu, baina hau konpondu daitekeelakoan nago.

**“Baina, gidariok (batzuk) izunpeko trabarik aurrean ez dugunean, gure instinto naturalera bueltzen gara”**





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxega

## Hagin-kadatxoak

Hagin-kadaka beharrez, aho bete hortz utzi ditu Andoni Urzelai errealizadoreak Irun Hiria literatura sarian aurkeztu diren gainontzeko parte hartzaileak. Izan ere, Andonik *Hagin-kadaka* liburuarekin lehenengo saria irabazi du. Ez dakigu Andoniri nondik dator kion liburuak idazteko zaletasun hori, baina joño, ikusitakoak ikusita ofizioa be bilakatu daiteke. Nire partetik, behintzat, zorionak, Andoni, eta ea noiz ematen didazun zure hagin-kadatxo bat niri... autografo eta guzti, e!

Jose Lonbideri, barrez, hagin-kada bat eskatu beharrez trago-txo bat eskatu beharko diot. Lombide Gastronomía eta Folklore jaialdian egin ohi den Patxaran Lehiaketako irabazlea dugu. Orain arte, bigarren eta hirugarren sariarekin konformatu beharra izan du, baina aurten lortu du, bai, patxaran ona egiteko formula.

Eta azkenik, **Eneritz Pagaldaren** gainean hitz egin gura dizuet. Eneritz Mozambikera doa urtebeterako. Hori bai morala eta eskuzabaltasuna! Argi barik, komun barik, argindar barik... eta gainera, 'Operacion Triunfon' nork irabazi duen jakin barik, hori bai bizimodu gogorra! Animo, Eneritz!



AMAGOIA LASAGABASTER

Plazako eraikina gune historikoan dagoenez, lanak egin ostean, kanpoko aldetik, behintzat, itxura berbera izan beharko du.

**LANAK/** Altzibar eraikuntza enpresak egingo du Kurtzebarri Eskolako eraikin berria

## Adjudikatuta Kurtzebarri Eskolak plazan duen eraikina egiteko lanak

AMAGOIA LASAGABASTER

**Azkenean ere, erabaki dute Kurtzebarri Eskolako eraikin berriko lanak nork egingo dituen. Altzibar enpresa eraikitzaileak egingo du herriko plazan eskola berria. Horretarako, lehenengo eta behin, oraingo eraikina bota egin beharko dute.**

Kurtzebarri Eskolako DBHko gela berriak egingo dituzte herriko plazako eraikinean. Horren ondorioz, garai baten udaletxe ere izandako eraikina eskola publiko bihurtuko dute.

### ARAZOAK LANA ADJUDIKATZEKO

Udalak aspaldi utzi zion herriko plazan dagoen eraikin nagusia Eusko Jaurlaritzari. Hark, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik bideratuta, berehala egin zuen eskola berriko proiektua. Hala ere, orain arte ez dira

lanak hasi. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak arazo ugari izan ditu lanak adjudikatzeko. Proiektua lehenengo aldiz lehiaketara iragarri zutenean ez zen inor aurkeztu. Gero, legeak baimendutako %10 gaineratu zioten hasierako aurrekontuari -1.444.640 eurori-, eta orduan ere ez zen inor aurkeztu. Azkenean, proposamen pertsonalizatua egin eta gero, joan den astelehenean, urriaren 21ean, Altzibar enpresari eman zioten Kurtzebarri Eskolako eraikin berria egiteko ardura. Orain, enpresa eraikitzaileak hilabete inguru izango du lanak egiten hasiteko.

kin berria egiteko ardura. Orain, enpresa eraikitzaileak hilabete inguru izango du lanak egiten hasiteko.

### EPE LUZERAKO LANAK

Kurtzebarri Eskolako eraikin berria egiteko lanak oso nekettsuak eta luzeak izango dira. Proiektuan zehazten denez, 18 hilabeteren bueltan amaituko dituzte lanak, baina epe hori, seguruenik, ez da beteko. Izan ere, lehenengo eta behin, eraikina bota egin beharko dute, eta horixe izango da, hain zuzen, astiroen egin beharreko lana. Eraikina ume eta gazte ugari dagoen lekuan kokatuta dago, eta eraispena kontu handiz egingo dute.

Kurtzebarri Eskolako eraikin berriak DBHko 12 ikasgela, teknologia lantegia, areto handi bat, plastikako gela eta liburutegia, komunak, administrazio gela eta etxezaintza izango ditu.

*Proiektua lehenengo aldiz lehiaketara iragarri zutenean ez zen inor aurkeztu*

## Fagor Sistemas-ek 25 urte bete ditu, eta egoitza inauguratu du

AMAGOIA LASAGABASTER


Urriaren 18an (egubakoitza), MCCko Fagor Sistemas/Mondragón Essembley Kooperatibak ekitaldi bikoitza egin zuen: batetik, Baineueteko Industrialdean

egoitza berria inauguratu zuen; eta, bestetik, lantegiaren 25. urteurrena ospatu zuen. Ekitaldian Jesus Catania MCCko Kontseilu Orokorreko presidentea, Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako Industria

eta Merkataritza sailburua eta Anjel Bergaretxe alkatea izan ziren. Edozelan ere, benetako protagonistak Fagor Sistemaseko zuzendaria eta lantegiak dituen bezeroak eta langileak izan ziren. Ospakizune-

an, gainera, orain dela 25 urte Fagor Sistemas sortu zuten hogeitaz bazeuden omenaldia egin zieten.

Fagor Sistemaseko muntaia eta robotikarako makina automatikoak egin dituzte.



Angel Bergaretxe alkateak ere berbaldi txiki bat egin zuen inaugurazio ekitaldian.

## LABUR

### Basotxo elkarteko erretiratuak Guardian izan ziren

Joan den eguaztenean, hilaren 23an, Basotxoko 70 erretiratu inguru Guardian izan ziren. Autobus bitan joan ziren, eta Guardia eta inguruak ikusten ibili ziren. Txangoan joan ziren hainbat erretiratutik esan zuten hango ardoa bezalakorik ez dagoela inon.

### Sai izugarri bat agertu zen Urkulun, Goroeta auzoan

Urriaren 18an, eguerdi aldera, metro bat luze zen sai ar bat azaldu zen Goroeta auzoko bide baten. Saiak, itxura baten, ez zeukan zauririk, baina, hala ere, geldi-geldi egon zen minutu batzuetan. Adituen esanetan, arraroa da jende ugari dabilen tokietan horrelako saiak ikustea.

### Udalak auto berria erosi die herriko udaltzainei

Udalak Opel etxeko Terrano autoa erosi die udaltzainei. Orain arte erabiltzen zuten autoak 13 urte zituen dagoeneko, eta erretiratzea pentsatu dute. Terrano berria 4x4 estiloko horietako bat da. Aste honetan matrikula jarri diote, eta aurrerantzean auto hori erabiliko dute udaltzainek.

### Aretxartek urteko batzar orokorra egin zuen

Urriaren 23an, Aretxarte merkataritza elkarteko bazkideek urteko batzar orokorra egin zuten. Batzarra kultura etxeko gela baten izan zen, 15:15ean. Besteak beste, elkarteko presidentea, presidenteorde eta idazkari berriak aukeratu zituzten.



**ENERITZ PAGALDAI/MUNDUKIDE ELKARTEKO KIDEA**

*“Garapen proiektu bat egitera noa Mozambikeko Marrupa herrira”*

AMAGOIA LASAGABASTER

Eneritz Pagaldai gertu dago urtebete argindar barik, ur korrante barik eta etxeok ikusi barik egoteko. Eneritz datorren astean Mozambikeko herrixka galdu batera joango da. Han, ahal duen laguntza osoa emango du.

**Nolatan zoaz Mozambikera?**

Mundukidek, Intermon guber-  
nuz kanpoko erakundearekin  
batera, proiektu bat dauka  
Mozambike iparraldeko Marru-  
pa herrian. Nik duela hilabete  
izan nuen proiektu horren berri,  
eta, egia esan, hasieratik gusta-  
tu zitzaidan, Hortaz, bi bider pen-  
tsatu eta gero joatea erabaki nuen.  
Eta zein da aurrera eraman  
behar duzun proiektua?

Niassa Probintzian dago  
Marrupa herria. Han, soberan  
dagoen bakarria beharra da. Mun-  
dukide eta Intermon behar guz-  
tietan irtenbidea emateko laguntza  
proiektua garatzen hasi ziren.  
Osasuna, hezkuntza, nekazari-  
tza... Ahal dugun alderdi guztiak  
landu gura ditugu; hau da, ez  
gara eskola bat eginda bueltatu-  
ko; laguntza osoa eman gura dugu.  
Horregatik, proiektua luzea izan-  
go da. Dena ondo badao, 2010n iku-  
siko ditugu emaitzak. Ni, hasie-  
ra baten, urtebeterako noa.  
Zehatz esanda, zein izango da  
zuk egin beharreko lana?

Helburua da Marrupan bertan  
proiektua garatuko duen talde  
bat sortzea. Horrela, herritarrek  
guztiz inplikatuko ditugu, eta guk  
alde egitean eurek emango diote  
jarraipena proiektuari. Nik tal-  
de hori sortu eta hezteko eginbe-  
harra daukat.

**Zelako da Marrupa?**

Mozambike herrialdea oso  
pobrea da, eta horren barruan,  
Niassa probintzia izango da ego-  
era tamalgarrienean dagoen pro-  
bintzia. Gerra aspaldi bukatu zen,  
baina orain, lehorte eta gosete ara-  
zoak dituzte, batik bat.

**Urtebete, azkar esaten da, bai-  
na egun asko dira. Beldurrik  
bai?**

Apur bat bai, baina ez denbo-  
rari bakarrik; nire lana ondo egi-



AMAGOIA LASAGABASTER

*“Gerra aspaldi  
amaitu zen, baina  
orain, gosete eta  
lehorte arazoak  
dituzte”*

teko ardurak ere beldur apur bat  
ematen dit.  
**Bakar-bakarrik egongo zara  
Mozambiketan?**

Zorionez ez: Mundukideko  
kide Beñat Artzadun ere han  
dago. Horrek nahiko lasaitzen  
nau; izan ere, ni hara joan ordu-  
ko Beñatek eginda izango du bide  
apur bat.

**Etxekoek eta lagunak zer esan  
dizute?**

Gurasoek gurago izaten dute  
euren alaba gertu izatea, baina  
buena, animatu egiten naute, eta  
nahiko ondo hartu dute. Lagunek  
ere nire erabakia bultzatzen dute.

*“Gurasoek gurago  
izaten dute euren  
alaba gertu izatea,  
baina nahiko ondo  
hartu dute”*

**Zein txerto hartu dituzu?**

Batez ere, malariaren kon-  
trako txertoa hartu dut. Marru-  
pan malaria boladaka iristen da,  
eta orain, hain justu, berriro ere  
hasi da zabaltzen.

**Eta maletan zer eramango  
duzu?**

Liburuak, eltxoen kontrako  
produktuak eta sendagaiak.  
**Aretxabaletarrekin zelan  
komunikatuko zara?**

Ni nagoen tokira ez da posta-  
rik iristen, baina irrati bidezko  
Internete sistema daukagu; ez da  
oso ona, baina horrekin konfor-  
matu beharko dugu.

**LABUR**


**Andoni Urzelaik ‘Haginkadaka’ nobelarekin Irun Hiria literatura saria irabazi du**

Andoni Urzelai telebistako errealizadore aretxabaletarrak Kutxak antolatutako 30. Irun Hiria literatura saria irabazi du. Andonik *Haginkadaka* liburuarekin euskaraz idatzitako eleberrien saria irabazi du, hain zuzen ere. Tragedian amaitzen den istorioa kontatzen digu Andonik eleberrian: Bilbon kokatzen da gertakizuna, eta protagonistak asteburua noiz helduko zain dauden gazteak dira. Epaimahaikideen esanetan, Andoniren kontaketa-egitura bizia da oso, eta, gainera, erabili duen hizkuntza bete-betean dator bat kontatutako istorioarekin. Epaimahaikide guztiak bat etorri dira, eta aho batez eman diote saria.

**Laster amaituko dituzte parrokiako bulegoak txukuntzeko egindako lan guztiak**

Uztailean hasi zituzten parrokiako bulegoak zaharbertzeko lehenengo lanak. Orduan, barruko aldeko material guztia kanpora atera eta lekua egiten ibili ziren. Gerora, hainbat lan egin dituzte: besteak beste, zenbait lekutako sabaia konpondu, argi sistema aldatu, hormak zaharberritu eta zorua berritu dute. Hori guztia joan den astean amaitu zuten langileek. Orain, barrualdeko material guztia txukundu eta gauza bakoitza bere lekuan jartzea gelditzen da. Horrez gain, bulegoko aretoan apalategiak jarri gura dituzte, eta horiek ere oraindik jartzeko daude. Edozelan ere, laster amaituko dituzte lanak.

**TXUTXUMUTXUA**



**VI. Gastronomía eta Folklore Eguna herrian**

Giro ona, behintzat, ez zen falta izan joan den urriaren 20an ospatutako Gastronomía eta Folklore Egunean. Errioxatik, Laudiotik, Donostiatik eta Arrasatetik etorritako elkarteak izan ziren herrian. Bakoitzak ordezkatzan zuen lurraldeko janari eta edariak ekarri zituen. Olagarroko, txitxi-burruntziak eta zenbait ardo izan ziren dastatzeko. Baina euskaldunek ere ez zuten hutsik egin jaialdian: Patxaran Lehiaketako txapel-duna, esaterako, Aretxabaletako Jose Lombide izan zen. /A. L.

**O R L Y**

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**MartiW**

*Bere bezeroen zerbitzura*

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta txarkuterian espezialitatea*

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA



TXOMIN MANTEGA/EHIZTARIA

# "Nik lumatzen ditut ehizan harrapatutakoak, eta ez amak"

AMAGOIA LASAGABASTER

**T**xomin Mantecak txikitatik du gustuko ehiza. Birigarroak, galeperrak, usoak... Horien guztien atzetik ibili ohi da ehizan. Kirol garestia dela dio, baina, hala ere, egun hauetan zeruari begira bizi dela onartu du.

## Noiztik zara ehiztaria?

Mutil koxkorra nintzela hasi nintzen aitarekin ehizan. Orduan, ehiza baimen edo agiri barik ibiltzen nintzen. Lizentzia, berriz, orain dela zortzi urte atera nuen.

## Non egiten duzu ehizan?

Normalean, ehiza-postuetan izaten naiz. Aurten ere Leintz Gatzagako guneeetan egin dut orain arte ehizan. Beste batzuetan, ehiza-esparruetara joaten naiz. Gutxien gustatzen zaidana mendian hara eta hona ibiltzea da. Ahal dudala, leku baten geldirik nagoela egiten dut ehizan.

## Zer ehizatzen duzu?

Birigarroen eta usoen atzetik ibiltzen naiz. Ehiztari gehienendako oilagorrek izaten dira piezarik preziatuenak. Nik, ordea, galeperrak ditut gurago. Hala ere, gauza bat argi dago: uso-pase bat izaten denean, ehiztari guztiok hari egiten diogu tiro.

**Aurten usoak ehizatzeo denboraldi ona dela esaten dute; zuk zer uste duzu?**


Denboraldia ona izango da, baina postu on bat ez badaukazu, jai daukazu! Dena dela, joan den urtea oso ona izan zen, eta kostatuko da aurten gaingintzea.

**Egia da ehiztariak zeruari begira bizi zaretela?**

Bai, ezin ukatu. Nik, behintzat, halaxe pasatzen ditut hilabete hauek. Autoa gidatzen noala ere, begi bat beti zeruari begira izaten dudala uste dut.

**Txakurrarekin ibiltzen zara ehizan, ala txakur barik?**

Galeperretan txakurrarekin ibiltzen nintzen, baina gero, hil egin zitzaidan eta ez dut besterik ekarri. Gainera, birigarrotan, esate baterako, txakur barik joatea gurago izaten dut. Kasu horietan, txakurrak txoria ikusi eta harra-



*"Ehiztari gehienendako oilagorrek izaten dira piezarik preziatuenak"*

patzera joaten da; orduan, txoria ezkutalekutik irteten da, eta argi ez bazaude, erraz egiten dizu ihes.

**Eta gero, txoria harrapatutakoan, zer egiten duzu harekin?**

Lumatu eta jan. Gainera, nik lumatzen ditut guztiak, eta ez, kasu askotan bezala, amak.

**Sukaldean ere zu ibiltzen zara?**

Egia esan, txoria goxo-goxo zelan gertatu badakit, baina amak hobeto gertatzen ditu, eta hari uzten diot lan hori. Bereziki, birigarroarekin eta galeperrekin egin-dako platerak gustatzen zaizkit.

*"Niri, bereziki, birigarroarekin eta galeperrekin egindako platerak gustatzen zaizkit"*

**Ehiza talde-kirola da?**

Bai. Ni neu lagun koadrila batekin ibiltzen naiz ehizan. Gero, batak besteari geure ehiza kontuak kontatu, eta afari ederrak egiten ditugu.

**Ehiztariak eta ekologistak ez zarete sekula lagunak izan; zein iritzi duzu liskar horren gainean?**

Nik ez daukat ekologistekin inongo arazorik. Norberak gura duena pentsatzeko eta egiteko eskubidea dauka. Nik ekologista guztiak errespetatzen ditut, eta trukean ere horixe eskatzen dut niretako, errespetua, alegia.

FUTBOLA

## Hernaniri irabazi gura diote UDAkoek oraingo domekan

Gol bako berdinketarekin konformatu behar izan zen joan den astean UDAko preferentea. Partidu serioa jokatu zuten Bittor Muxikaren mutilek, baina, hala ere, ezin izan zuten Zestoako taldea menderatu. Partiduan nobedade bat ere izan zen: Aitor Alartzia titular izan zen, zazpi hilabetean min hartuta egon ondoren. UDA Hernaniren aurka jokatuko du hurrengo partidua, domekan.

FUTBOLA

## Bigarren mailako erregional taldeak itxura ona erakutsi du orain arteko partiduetan

Joan den denboraldian ondo ibili ziren UDAko bigarren erregional mailako mutilak, eta aurten ere ez dira atzean ibiltzeko gertatu. Bosgarren jardunaldia jokatu dute eta oraingoz bi partidua bakarrik galdu dituzte. Biak, gainera, Martin Garai taldeko arduradunaren esanetan, arbitroaren erruz izan dira. Edozelan ere, sailkapenean laugarren daude bigarren mailako erregionalak.

MULTIKIROLAK

## Kurtzebarri Eskolakoak multikirolak egiteko entrenamendu saioak egiten hasi dira

Aurten ere eskolaz kanpoko kirolak -multikirolak programa- landuko dituzte Kurtzebarri Eskolako gaztetxoek. Eskolen Arteko Txapelketako lehenengo partidua azaroaren 9an jokatuko dituzte; hala ere, Kurtzebarri Eskolakoak hasi dira lehenengo entrenamendu saioak egiten. Multikiroletan Arizmendi Ikastolako Almen guneak eta Luis Ezeizak ere parte hartzen dute.

PILOTA

## Eskuz Binakako Pilota Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten kirol etxean

Joan den asteburuan, Eskuz Binakako Txapelketako hiru partidua jokatu zituzten: lehenengoan, Korta eta Iturbe arrasatearrek 22-14 irabazi zioten Unanue eta Carrillori; bigarren partiduan, bestalde, Uribarrenek eta Goikoetxeak osatutako bikotea 22-8 gailendu zen Antxiaren eta Larrinagaren aurka; hirugarren partiduan, Muxikak eta Xabier Sarasuak 17-22 irabazi zien Jon eta Oier Sarasuari.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

UDA-Hernani  
Preferentea.  
Domekan, 16:30. Pasaia.  
UDA (c)-Ondarroa  
Bigarren mailako gazteak.  
Zapatuan, 16:00. Ibarra.

### PILOTA

Aretxab.(2)-Bears. (2)  
Nagusiak.  
Egubakoitzean.  
Aretxab.(2)-Añorga (2)  
Nagusiak.  
Egubakoitzean.

## EMAITZAK

### FUTBOLA


Zestoa 0 UDA 0  
Preferentea.  
UDA 0 Mondra 1  
Gazteen Euskal Liga.  
UDA 2 Legazpiako 3  
Bigarren mailako erregionala.  
UDA b 3 Gazteak 1  
Bigarren mailako gazteak.  
Urki 3 UDA c 0  
Bigarren mailako gazteak.  
UDA b 0 UDA 3  
Lehenengo mailako kadeteak.  
UDA 3 0 Tolosa 1

### PILOTA

Uriarte/Hoyon 22  
Zumaiko 5  
Kadeteak.  
Altube/Kortabarria 21  
Azkoitiako 22  
Gazteak.  
Alzola/Lasagabaster 13  
Tolosa 22  
Seniorrak.  
Errasti anaiak 20  
Oskarbi 22  
Nagusiak.

# Lubia

oinetakoak



zapatak, zapatilak,  
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABAETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

# Dorleta

## taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
Aretxabaleta  
Tel.943 79 94 15

# Gemes edertze aretoa

- ✓ Depilazio elektrikoa
- ✓ Makillaje iraunkorra
- ✓ Aurpegiko azalaren garbiketa

Durana 40 ARETXABAETA Tel.: 943 79 99 18



ERRETRATUZHARRA

# Domu Santu Egunez kanposantuan

**D**omu Santu Egun batez, duela 33 urte aterata dago ondoko argazkia. Maite Ortiz de Zaratek adierazi digunez, domeketako arropak jantzita, eta neskatilak jantzita dituzten soinekoei begiratuta eguraldia lagun izan zutela, dotore asko joan ziren kanposantura.

Domu Santu Egunaren bezperan, Porrakua baserrian lore sorta ederra prestatzen zuten etxeko hildakoendako: "Zelofan paperarekin batzen genuen sorta, eta gero, lazo beltz batekin egiten genion korapiloa", gogoratzen du Maitek. "Antonio Zuazabeitia, osaba genuena, aurreko urtean hil zen, eta haren hilobia bisitatzera joan ginen argazkia atera zigutenean. Koadrilan joan ginen, ikus daitekeen moduan; familiartekoei eta geure amak Taberna Berrin lan egiten zutenez, bertako neskatilak ere gurekin etorri ziren kanposantura", esan digu Maitek. Maiteren etxean ere, beste etxe askotan moduan, Domu Santu Egunez kanposantura joateko ohitura handia zuten. Gaur egun,



berriz, nahiz eta gurasoek oraindik ere ohiturari eutsi, Maitek galduta dauka hildakoak bisitatzera joateko ohitura.

Osaba batek, argazki-kamera erosi berria zuela-eta, kanposantuan bertan familiakoei argazkia ateratzeko aprobetxatu zuen. Gero, denok elkarrekin Porrakuan bazkaldu zuten, eta

han ere osabak argazki batzuk bota zituela esan digu Maitek

Argazkian, goiko ilaran, ezkerretik hasita, honakoak ageri dira: Consuelo Olabe, Miren eta Duni Zuazabeitia ahizpak, eta Eulali Zuazabeitia, aurreko bien lehengusina. Bigarren ilaran, berri, Jon Zuazabeitia,

Arantxa Pérez, Lorea Isasisasmendi, Aintzane Ortiz de Zarate eta Julen Zuazabeitia daude. Eta Eli Zuazabeitia, Pello Olabe eta Maite Ortiz de Zarate dira behean ageri diren umeak.

Argazkia: Maite Ortiz de Zarate

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


## Etxe berriak eta zaharberritutakoak

**D**urana kaleko 13, 15, 17 eta 19 zenbakietako etxeak zaharberritzeko lanak duela bi urte hasi ziren. 17. zenbakiko aurreko fatxada izan ezik -kultur ondarearen barruan kokatzen delako-, gainerako eraikin guztiak bota eta lehen zituzten ezaugarri berberekin berreraiki zituzten. Atzegi elkartearendako eta beste 16 familiarendako etxeak egin dituzte Duranan.



≈ 1999

Garabia Santa Kurtzeko 22. zenbakia eraikitzeke jarri zuten, 99an. Inguruak urbanizatu eta Durana zaharberritu zuten gero.



2002

Behin lanak amaituta, familiak hasi dira etxe berrietan bizi izaten, Izenik ez badu ere, beste kale bat dauka orain Aretxabaletak.

OPEL

OPEL COMBO TOUR:  
Lider berria.

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA  
943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20

Garaje Norteen autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera, eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**





# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 25a / 98. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETIA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Ezkurtxok Gellao auzora eramango ditu herriko umeak

AINTZANE GARDOKI

Aurten, zazpi urte beteko ditu Ezkurtxok. Lehen urtean herriko auzoak ezagutu zituzten, eta geroztik, elizatez elizate ibili dira herriko umeak Ezkurtxorekin batera. Bihar, zapatua, Gellaora joango dira. Arizmendi Ikastolako Jose Arana guneak antolatzen du Ezkurtxo Eguna.

Duela zazpi urte herriko bertako auzoak ezagutu eta gero, Bolibar, Marin, Apetzaga, Mendiola eta Zarimutz ere bisitatu dituzte Ezkurtxoren eskutik herriko umeak: "Ideia horrekin jaio zen Ezkurtxo. Umeek, eta askotan gurasoek ere, ez dituzte ezagutzen herriko elizateak. Urte hauetan Eskoriatzako auzuneetan ezusteko atseginak jaso dituzte askok", esan digute ikastolako antolatzaileek. Euskal mitologiarekin eta auzoarekin lotutako gai konkretu bat landu izan dute beti. Aurten, mitologia eta historia kontuak alde batera utzita, natura hartu dute gai nagusi. Bihar, zapatua, 16:00etan, hainbat zuhaitzen hostoak identifikatu beharko dituzte umeek egingo duten ibilalditxoan. Horren ondoren, Arizmendi-Almen guneako ikasle nagusiek



Ipuin kontalari gazteak, txikienei kontatuko dizkietenak prestatzen.

ipuinak kontatuko dizkiete txiki, eta txokolate-jana ere izango da. "15:30ean, bi eta zazpi urte bitarteko umeendako, lehenengo autobusa irtengo da herriko ikastolatik. Bigarren autobusa, hamar

urte bitartekoendako, 16:00etan joango da Gellaora", adierazi digute antolatzaileek. Duela hilabete eta erdi hasi ziren ikastolan Ezkurtxo Eguna antolatzen. 20 lagun ibiliko dira lanean, dena ondo

irten dadin. Datorren urtean, Mazmelara, agian, trenez joango da Ezkurtxo. Herria ezagutarazteko helburua guztiz beteko du orduan, baina gero ere lanean jarraituko ei du ezkur txikiak.



### XIII. Bizikleta Martxa arrakastatsua

Eguraldi ezin hobea lagun, joan den domekan, 184 txirrindularik bizikleta hartu eta 38 kilometroko buelta ederra eman zuten. Herritik Erañara joan ziren; handik, Irebanera, Leizargaratera eta Araba aldera jo zuten, Marietaraino. Hamarretakoa egin eta gero, Usarretik Aitzorrotxera, eta, azkenik, Eskoriatzan amaitu zuten ibilaldia. Mendaroar gazte bat iritsi zen lehena. Eroriko eta matxura bat baino gehiago izan zen, baina gehienek amaitu zuten proba. /A.G.

### LABUR

#### Olazar elkarteak antolatuta, 54 erretiratu bidaian

Astelehen goizean, herriko 54 erretiratu autobusa hartu, eta Murtziarantz abiatu ziren. Astebete pasatuko dute La Manga del Mar Menor-en. Hotela La Manga del Mar Menor-en bertan izango duten arren, Murtzia hiriburua, Cartagena, Mula, Maratalla eta Caravaca de la Cruz ere bisitatu dituzte, besteak beste. Urtero egiten dute era honetako astebeteko egonaldia herriko erretiratuek. Itzulitakoan kontatuko dizkigute han bizi izandakoak, seguru.

#### Liburutegi berriko lanak abenduan amaituko dituzte

Otsailaren erdi aldera hasi zituen Zutarri enpresak liburutegi berriko lanak. "Hasierran, arazotxo batzuk izan genituen, baina orain, garaiz gabilta; liburutegia abendu erdi ingururako amaituta izatea espero dugu", esan digu Lan eta Zerbitzuetako zinegotzi Juan Carlos Bengoak. Hark aditzera eman digunez, liburutegi berriak 425 m<sup>2</sup> izango ditu, eta ohikoak diren zerbitzuez gainera, besteak beste, hainbat eratako euskarriak izango dira aukeran.

#### Eskoriatzarrak Oñatiko autokros lasterketan

Joan zen domekan Oñatin egin zen autokros lasterketan hainbat eskoriatzarrek hartu zuten parte. 2.500 lagun egon ziren lasterketa ikusten eta gogotik disfrutatze moduko ikuskizuna eskaini ei zuten auto-gidariak. Gellaoko Josu Otxoak hirugarren postua lortu zuen. Javier Zugasti ere finalera iritsi zen. Beste eskoriatzar batzuk ere hartu zuten parte frogan; Gaizka Zubizarreta eta Oscar Ortuetak, besteak beste.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Astroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Rénfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**'EZKURTZO' EGUNA GELLAON**  
Bihar, zapatua, ipuinak, ibilaldiak, txokolate-jana eta beste izango dira Gellaon, 16:00etatik 18:30era. Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunetik autobusa irtengo da, 15:30ean, bi eta zazpi urte bitarteko umeendako, eta 16:00etan, zazpi eta hamar urte bitartekoendako.

**EUSKAL MITOLOGIAREN GAINKO BERBALDIA**  
Amuskak antolatuta, hilaren 29an, martitzenez, *Mitología vasca; nuestra particular visión del cosmos* berbaldia egingo du Gerarta Arotzenak, kultura etxean, 18:00etan.

**AXTROKIRENAGENDA**

**NAFARROA OINEZERAKO ESKORIATZARRIK EZ**  
Elkarteak Tuteran egin zen Nafarroa Oinezan lana egiteko eskera egin bazien ere herritarrei, Eskoriatzako inork ez zuen laguntzarik eman. Txistua horri.

**KIRMEN URIBE/ 'BITARTEAN HELDU ESKUTIK' POESIA ERREZITALDIA EGINGO DU GAUR, EGUBAKOITZA**

*“Tamalez politikariak ez dira konturatzen kulturak egiten gaituela gu geu”*

AINTZANE GARDOKI


**Kirmen Uribe ondarrutarra irakaslea, itzultzailea, interpretea eta gidoilaria da. Entseguak, poemak, ipuinak eta komikiak atera ditu hain hemenka, eta hainbat musika talderendako hitzak ere idatzi ditu. Gaur, geurean da 'Bitartean heldu eskutik' lanarekin.**

**Noiz eta zelan sortu zen Kirmen Uribe?**

Nik bi iturri izan ditut beti: ahozkoa eta idatzizkoa. Txikitandik beti izan dut gogoko etxeko ezkaratzean pasadizoak eta kontu zaharrak entzutea. Horretan etxeko emakumeak oso iaioak izan dira. Gero, 13 urte nituela, anaiak Leonard Cohen-en poema-liburua opari egin zidan. Mundu bat zabaldu zen niretako. Pessoa eta Dylan Thomas etorri ziren geroxeago. Lehenengo poemak anaiak musikatu zituen, 1987an. Garai hartan hasi nintzen komikiak egiten, Josu Aranbarrarekin. Bitxia da, baina hainbat urte geroago, hirurok batu gara ikuskizun berri honetan. Berriro batu gaitu bizitzak. Txomin anaiak gitarra jo eta Josuk zuzeneko margolana egiten du.

**Hiriak ala herri txikiak dituzu gogoko?**

Gasteiz eta Ondarroa artean bizi naiz. Gustuko ditut biak, eta ez nuke bietako bat galdu nahi. Ez dut aukeratu nahi. Ondarroak leku



batekoa izateko zentzua eman dit: han ditut nire lekurik gogokoenak, lasaitasuna eta itsasoa. Gasteizen, berriz, anonimatua dago, ahazteko aukera, bazterreko hiria euskal kulturaren. Eta lagun onak: Mikel Urdangarin, Mikel Valverde, eta abar.

**Eskoriatza ezaguna duzu?**

*“Hamahiru urterekin Cohen-en poema-liburuak mundu bat zabaldu zuen niretako”*

Eskoriatza ez dut bereziki ondo ezagutzen, baina badakit jendeak ohitura duela oraindik kalean batzeko, eta gauza handia da hori. Ekitaldian nahiko nuke jendea gustura sentitzea, ez dadi-la egon jauzi handi bat idazlearen eta irakurlearen artean; alegia, elkarren arteko komunika-

*“Badakit Eskoriatzan jendeak ohitura duela oraindik kalean batzeko”*

zioa lortu nahi nuke gaurko erre-zitaldian.

**Euskaldunok zenbateko garrantzia ematen diogu kulturari?**

Euskaldunok arreta jartzen dugu, baina politikariendako bigarren mailakoa da, ekonomiaren atzetik doa. Tamalez ez dira konturatzen kulturak egiten gaituela gu geu. Ez dira konturatzen Euskal Herria izenak berak baduela kulturari lotuta dagoen adjektiboa, *euskal*, alegia.

**Hortaz, zelako osasuna du euskal kulturak?**

Uste dezakegu kultura indartsua dela gurea, homologatu egin garela eta kontu horiek, baina ez da horrela; ez dut esaten asko aurreratu ez dugunik. Sortzaile onak daude eta kulturaren alde egiten duen jende andana, baina hutsune nabariak ere baditugu.

**Aurrerantzean, zertan ari-tuko da Kirmen Uribe?**

Bidean ibiltzea da nire asmoa. Ibilbide luzea da idazlearena, eta tentuz ibiltzea komeni da. Nik errespetu handia diet irakurleei, eta ez nuke nahi arinkerian erori. Liburuak, fruituak bezala, ondu egiten dira, eta ez da komeni gogor daudela ateratzea. Italo Calvinok esaten zuen koadernoak betetzen zitzaizkionean argitaratzen zituela lanak. Nik baditut batzuk nahiko beteta. Uste dut narratibakoa izango dela hurrengo nire lana. Gaur hori uste dut, behintzat, baina bihar ez dakit.

**LABUR**

**Gero eta arrakasta handiagoa daukate herrian antzezten diren antzeztanek**

Ramon Bareak zuzendutako *Palabrisimos* antzeztana izan da herrian antzeztu den azkeneko lana. HUHEZIKO areto nagusia, azkeneko aldieta gertatzen ari den moduan, jendez gainezka egon zen. “Antzerki eskaintza zabaldu guran, formatu txikiko lanak ekartzen hasi ginen duela

hilabete batzuk. Formatu txikia bai, baina kalitatezkoaren bila jo dugu, eta badirudi asmatzen ari garela, herritarrak ondo erantzuten ari da-eta”, esan digu Arantxa Untzueta kultura teknikariak. Eta urtea amaitu bitartean antzerki gehiago ikusteko aukera izango dugula ere esan digu.

**Jaunartzea egingo duten umeei euren gurasoek irakatsiko diete katekesia**

Jaunartzea egingo duten umeak sei urterekin hasten dira kristau ikasbidea ikasten, eta bederatzirekin egiten dute jaunartzea. Jaunartzea prestatzean hasteko, gurasoek, lehenik, batzar bi egin dituzte parrokoarekin. Batzar horietan abadeak gurasoei irakatsi die gero gurasoek eurek

seme-alabei irakatsiko dizkieteanak. ‘Esnatu’ liburua oinarri hartuta, hamabi gurasok ekin diote kristau ikasbidea ikasteari. Liburuak era atsegina eta erakargarria jorratzen ditu katekesian ikasi beharrekoak. Azaroaren 20an hirugarren batzarra izango dute parrokoarekin.

**Villar**  
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

*Santa Ana*  
GOZOTEGIA



Santa Ana 7  
ESKORIATZA  
Tel. 943 71 52 36

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

Zure  
Zerbitzura



Informazioa eta erreserbak:  
943 58 50 58 eta 617 78 74 32  
LEINTZ GATZAGA



## KULTURA

Katalanak izan dira udan  
Gatz Museoa gehien  
bisitatu dutenak

AINTZANE GARDOKI

Gatz Museora gero eta jende gehiago etortzen dela bisitan esan digu museoko arduradun Aitziber Gorosabelek: "Aurten, 2.000 lagunetik gora izan ditugu museoan, baina egia da jende askok museoaren berri ere ez duela oraindik. Dena dela, eta poliki-poliki bada ere, jendea hasi da gerturatzeko", azaldu digu Aitziberrek. Asteburuetan Gatz Fabrika eta Gatz Museoa ikustera etortzen den bisitaria, neurri handi baten, Debagoienekoa eta ingurukoa da. "Udan, aldiz, estatuko jende gehiago etortzen da. Katalanak dira gurera gehien etortzen direnak", gehitu du Aitziberrek.

Zapatuetan eta domeketan lau bisitaldi eginen ditu Aitziberrek: eguerdian, euskarazko bisita eginen du, eta 13:00etan, gaztelaniazkoa; arratsaldean, berriz, 17:30ean, euskarazko bisitaldi gidatua eskaintzen du, eta 18:30ean, gaztelaniazkoa. "San Millan feriaren ondoren, oraindik guztiz zehaztuta ez badauka-


*"San Millan egunerako putzupada gurpilaren maketa ikusgai egongo da"*

gu ere, neguko ordutegia ezarriko dugu, hau da, arratsaldeetako bisitak ordubete aurreratuko ditugu", gehitu digu Gorosabelek.

Ikasturte honetan bada bestelako berrikuntzarik museoaren inguruan. Batetik, datozen hilabeteetan Miriam Txintxurretak museorako materiala osatzeaz gain, umeei zuzendutako gatzari buruzko unitate didaktikoak sortuko ditu. Bestetik, Jesus Etzezarreta oñatiarrak San Millan feriarako prestatuta izango du putzupada gurpilaren maketa; "egungo gurpilaren funtzioak argi-argi ikusi ahal izango ditugu maketarekin", esan digu Gorosabelek.



Bi mila lagunek bisitatu dute Gatz Museoa aurten.



## Uretan plisti-plasta arrainen antzera

Herriko mutiko bi igeri egiten ikasten hasi ziren Eskoriatzako kiroldegian duela hilabete. Asier eta Xabi euren amekin joaten dira astean hirutan igerilekura. Uraren freskoa, beldurra, urduritasuna... sumatzen zitzaizkien umeei hasieran. Orain, aldiz, gustura baino gusturago ibiltzen dira uretan. Ama biak ere pozik daude semeek egindako aurrerapenekin. Bariku iluntzetan, berriz, igeriketa ikastaroa aitzakia hartuta, afari-merienda ederra egiten dute laurek, etxera bidean, Marulandan. /A.G.

## LABUR

## San Millanetarako frontoi atzealdea itxiko du Udalak

Azaroaren 10ean izango den San Millan feriarako frontoiaren atzeko partea itxi egingo dutela jakinarazi digu Udalak: "Edozein ekitaldi edo kirola egiten denean, afrontu handia sortzen da frontoian. Beti toloak jartzen ibiltzen gara, baina ez da irtenbide egokia", esan digu Joxerra Agirreurretak. Lanak egiten hasi dira dagoeneko: "Material gardenarekin itxiko dugu frontoiaren atzeko alde. Asko irabaziko du frontoiak", gaineratu du alkateak.

## Meza San Millan parrokiaren domekatik aurrera

Etzi hasi eta datorren maiatzera bitartean domeketako meza nagusia San Millan parrokiaren izango da. Ohituraz, maiatzaren lehenengo domekatik urriaren azkeneko domekara Dorletan izaten da meza. Aurten, aldiz, Dorletako Santutegian zorua konpontzeko lanak egin behar dituztela-eta, astebete lehenago hasiko dira meza esaten San Millanen. Bestetik, parrokia margotu egin dute duela gutxi, eta astean, eliza garbitu eta txukundu ere egin du emakume talde batek.

## Mendebaldeko Sahararen gaineko berbaldia museoan

Sorginak Emakume Taldeak antolatuta, gaur, barikua, 18:30ean, Mendebaldeko Sahararen gaineko berbaldia egingo dute Gatz Museoa gurean dagoeneko ezagunak diren bi emakumek: Ahlila Moamed Babetek eta Mohamed Sidi Galiak. Lehenengo, Mendebaldeko Saharak bizi duen egoeraren gainean mintzatuko dira, eta horren ondoren, euren herriaren gaineko dokumentala erakutsiko dute.

aroztegia  
**Leniz**

Aingerugardako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

**ALZA**

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!

**ESKORIATZA** **Bazkariak eta afariak**

**MENDIOLA** **ERRETEGIA**

Tfno 714345

Menduiola auzoa  
ESKORATZA  
943 71 43 45  
Astelehenetan itxita



**AZKENA taberna**  
Solohaundi 8 Aretxabaleta. 943 79 74 57

**GUREA**  
taberna  
jaketxea

Durana kalea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 20 64

**JOSU**  
taberna  
harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08



**URBALTZ**  
TABERNA

URBALTZ taberna

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETA



**ZARAIA**  
TABERNA

**BERRITZE-LANENGATIK ITXITA**

Goizko jantzi zerbitzuan  
MANTEKA ANAIK  
Araba Ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95. Aretxabaleta

**HIRUSTA JATETXEA**  
Zatoz gure sukaldean ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

**Baster-Alde jatetxea**

Sasoiko jakiak giro onenean

Galartza auzoa, Aretxabaleta  
943 79 24 58



**LAGUNAK**  
DASTALEKU

Tel. 943714063

Gustora egoteko!  
Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA



**IZOTZ**  
Taberna

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABALETA

**ARLUTZ**  
TABERNA

Gustuko musika  
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34



**ALDATZ**  
Taberna

Musika ona entzun dezazun

Tel.: 943 71 41 71  
ESKORIATZA

**Mirentxu**

Hidalga 10  
Eskoriatza. 943 71 41 67



**ARTANO** akaitegia

Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA



**NAIRA**  
Taberna

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71



# GRUPO **ARKAUZ** 1950-2002



*Arkauz zure etxea da.*



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAETA

